

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Begoña Zubizarreta Mujika

*Bergara,
Gipuzkoa
(1922-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Aritzeta auzoko Usasti (Oruesagasti) baserrian jaio zen, lau anai-arrebatatik hirugarrena.. Ama bertakoa zen, eta aita berriz, Aramaioko Azkoaga auzoko Zabaldia baserrietik etorritakoa. Ahizpa eta anaia zaharragoak Amerikara joan ziren, eta bera geratu zen aitaren laguntzaile, baserriko eta basoko lanak egiten. Hortik aparte, etxeko lanak ere egiten zituen. Bergarako pilotaleku aurreko eskolan ibili zen hamalau urte arte. Harrezkero Usasti baserrian bizi izan da. Bergarako Ignacio Bilbao edari eta izotz banatzailearekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Autobia egin zutenean lur zati handia kendu zioten, eta laster etxetik alde behar dute, errepide berri bat Usasti baserriaren gainetik pasatuko baita.

Zintak

BER-281

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-13
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

BER-282

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-13
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Anai-arrebak Argentinara; Begoña baserrian

- **Erref:** BER-281/002

- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:02:02. **Bukatu:** 00:03:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Begoña umea zela, amama, gurasoak eta lau-anai-arreba bizi ziren Oruesagasti baserrian. Ahizpa zaharrena Argentinara joan zen Mundu Gerra sasoian. Handik pare bat urtera anaia joan zen. Anaia gazteena Begoña baino hamar urte gazteagoa zenez, berak lagundu behar izaten zion aitari baserriko lanetan.

2. Nazionalistak nagusi hauteskundeetan; Errepublika

- **Erref:** BER-281/009
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:10:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Hauteskundeak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Garai batean hiru alderdi egoten ziren hauteskundeetan: karlistak, errepublikanoak eta nazionalistak. Bergaran beti nazionalistek irabazten zutela dio Begoñak. Errepublika aldarrikatu zenean ez ei zuen ezer berezirik sumatu herrian. Inguruko beste herri batzuetan mugimendu gehiago egon zen.

3. Eskolan adin desberdinetako umeak batera

- **Erref:** BER-281/010
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:18. **Bukatu:** 00:11:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Eskolan denetarik ikasten zuten. Adin desberdinetako umeak elkarrekin egoten ziren, baina neskak eta mutilak aparte. Goiko plazako eskola nazionaletan mutilak bakarrik egoten ziren. Bere anaia Antzuolara joan zen maristetara. Gero, gerra sasoian erre egin zuten maristen eskola.

4. Anaia eta osaba frontera derrigortuta

- **Erref:** BER-281/013
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:13:13. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra zibila hasi zenean, Begoñaren anaia militarizatuta zegoen Soralezeko kainoi fabrikan hasi zen lanean, pentsaturik ez zutela frontera eramango. Baina hala ere eraman egin zuten. Osaba bat ere "kamillero" moduan eraman zuten frontera, bost ume txiki etxean lagata. Asko sufritu zutela dio.

5. Gerra sasoiko isuna; aita mehatxupean frontera

- **Erref:** BER-281/014
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerran ez zuen seniderik galdu, baina asko sufritu zutela dio. Herritarren artean ikusiezinak sortu ziren. Aitari isuna jarri zioten eta diru guztiak kendu zizkieten. Eman zieten ordainagirian jartzen omen zuen borondatez eman zutela diru hura espainiar armadarentzat. Gainera, aita idiekin eta gurdiarekin mendira eramaten zuten, munizioa jasotzera, mehatxupean. Begoñak 13 urte zituen eta une gogorak bizi izan zituztela dio.

6. "Hablen en cristiano" esaten zieten kalean

- **Erref:** BER-281/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gerra sasoiari, kalean euskaraz hitz eginez gero "hablen en cristiano" esaten zieten. Begoñak bazekien gaztelaniaz, eskolan ikasi zuelako, baina etxean dena euskaraz egiten zuten eta lagun askorekin ere ohitura hori zuen.

7. Baserriko lanen banaketa

- **Erref:** BER-281/019
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:20:32. **Bukatu:** 00:22:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Begoñaren gazte denboran etxean egun arrunt bat nolakoa izaten zen eta zer lan egiten zituzten. Sasoiaren arabera, lan desberdinak. Ganadua zuten etxean. Behia jezten hasi zen batean zer gertatu zitzaien. Esnea partitzen ibiltzen zen.</p></div>

8. Kapoiak, etxearen errenta ordaintzeko beharrezkoak

- **Erref:** BER-281/020
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:22:26. **Bukatu:** 00:25:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak
- Baserría » Baserríko bizimodua » Baserríaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Beti izan dira errenteroak. Gabon inguruan ordaintzen zen errenta garai batean: garia eta kapoi pareá. Gerora, gariaren balioa dirutan eman behar izaten zuten. Amak zikiratzen zituen oilaskoak. Ez zen erraza izaten, bizirik eraman behar izaten ziren eta. Behin kapoiak lapurtu zizkieten txabolatik eta kapoi bakarra geratu zitzaíen. Aita etxejabeengana kapoi harekin joan zeneko kontuak.</p></div>

9. Etxejabeekin harremana

- **Erref:** BER-281/021
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:25:38. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herríko giroa » Pertsonaía ezagunak
- Baserría » Baserríko bizimodua » Baserríaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etxejabeek ez zuten konponketarik egiten baserrían. Dena euren poltsíkotik ordaindu behar. Irizartarrak ziren etxejabeak. 300 baserrí inguru izango zituztela esaten zuten. Orain haietako baten semea da euren baserríaren jabea. Gerra sasoián, gariáz eta kapoíez gain, baba ere eskatzen ei zuten eta baita kapoíei emateko artoa ere (kapoíak bizirik eramaten ziren eta).

10. Gerratean senar-emazte batzuk eta haien laguntzailea etxean

- **Erref:** BER-281/024
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:29:16. **Bukatu:** 00:33:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoián kanoíak ipini zituzten euren etxetik gertu. Senar-emazte batzuk eta haien laguntzailea etxean hartzera behartu zituzten. Gizona, Emilio izenekoa, kapitaina edo sarjentua zela uste du. Haien inguruko kontuak.

Laguntzailea oso desatsegina omen zen. Denbora dezente pasa zuten euren etxean. Azkenean, gizona ondo portatu zen eurekin eta, arazorik baldin bazuten, berarengana jotzeko esan zien.</p>

11. Gerraostean, garratzutako artoak

- **Erref:** BER-281/026
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:34:38. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean miseria hasi zen. Arto ustelak eta txerrikeriak janarazi zizkietela dio. Ematen zieten artoa normalean garratzuta egoten ei zen eta txakurrak ere ez zuen nahi. Hala ere, beraiek ez zuten goserik pasa.</p>

12. Garai batean txanketeen jotzen zuten garia

- **Erref:** BER-281/033
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:41:42. **Bukatu:** 00:43:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Garia-jotzea auzolanean egiten zen eta baita ebakitzea ere. Gogoan du gaztetxoa zenean txanketeen jotzen zutela garia. Nola egiten zen. Orduan, "zenbat meta hainbat egun" behar izaten omen ziren eta bakoitzak bere garia jotzen zuen. Gero, garia jotzeko makinarekin hasi zirenean, auzokoak elkartzen ziren eta arratsalde batean jotzen zen gari guztia.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com